

# Javier Irureta

Txamarra jantzita eta betiko aterkia eskuan azaldu da zitara. Umil, atsegin, sinple. Djalminha izar zoroaren burukadari aurre egin ziona bera ote zen galdetu diot nire buruari.

**SUSTRAI COLINA**

Argazkiak: Iñigo Azkona

## Entrenatzailea bere bakardadean

# «Jokalariek bota nahi bazaituzte, botako zaituzte»



Jendeak futbol mundu *glamouroso* eta izartsutik ezagutzen zaitu, baina izatez baserrian jaioa zara.

Irungo Portu auzoko lau bizitzako base-  
rri batean jaio nintzen, zazpi senideko  
familia batean. Erdikoa naiz, hiru senide  
zaharrago eta hiru gazteago dauzkat.  
Beti esan dut zaplazteko gehienak erdi-  
koa izateagatik jaso ditudala. Jakina,  
zaharragoei errespetua zor zitzaien, eta  
gazteagoak mimatu behar ziren. Ondo-  
rioz, errua, egurra eta mandatuak nire-  
tzako. Hori bai, gogoan dut, distantziak  
distantzia, eskolara oinez joan izan gare-  
la beti. Gaurko modak harritu egiten  
nau. Autobusak ia-ia etxez etxe ibiltzen  
dira haurrak batzen, eta baten bati gelto-  
kia urruntxo geratzen bazaio kexatu egi-  
ten da.

**Eskolara bidean baloia bezain amets borobilak egingo zenituen.**

Etxean ez genuen futbol girorik. Meaka-  
ko eskola utzi eta Irungoan hasi gine-  
nean hasi nintzen futbola arnasten.  
Urdanibia plazan bankutik bankurako  
tarteak aprobetxatuz jokatzeko genuen,  
hondartzakorako taldea ere orduantxe  
osatu genuen. Oroitzen naiz horretarako  
fitxa faltsifikatu behar izan zidatela  
hamabi urtez azpikoek ezin zutelako

## Nortasun agiria

1948ko apirilaren 1ean jaio zen Iru-  
nen. Jokalari gisa, 344 partida joka-  
tu zituen lehen mailan, bi liga, Errege  
Kopa bat, eta Kontinente-arteko  
kopa irabazi zituen. Entrenatzaile  
bezala, 612 partida zuzendu ditu  
lehen mailan, hainbat talderen aul-  
kietatik; Deportivorekin liga eta kopa  
bat lortu zituen.

parte hartu. Hortik landa, konturatzerako, baloiaren atzetik bizi izan ginen. Inguruko torneo guztiak jokatzeaz gain, ondoko auzo eta koadrilak ere desafiatzen genituen. Ez zait ahaztuko behin Berakoen aurka jokatu genuela. Bizikletan joan ginen bertaraino, eta erraz irabazteaz gain, nik gol mordoa sartu nien. Bizikletaren gurpilak zulatu zizkidaten eta Beratik etxera halaxe itzuli behar izan nuen. Eskerrak lagun batek mobileta zeukan. Gibelean eseri, 50 metro egin, eta guardia zibilik zegoen ikusteko geratzen ginen. Beste 50 metro, gelditu, eta... Iruneraino. Handik gutxira sartu nintzen Real Unionen, baina ezer izatekotan, kaleko jokalaria izan naiz.

### **Ezberdina da kalean jokatzen hezi eta hazi den futbolaria?**

Bai. Kalean ohitzen denak malezia asko garatzen du. Karrikan beti zabilta apustuan, beti dago zerbait jokoan, orduan trikimailu eta jukutria asko erabiltzen ikasten duzu. Gaur egun, hain gazte futbol akademietara joaten diren umeek hori ez dute sekula ikasiko. Bistan da askoz baldintza hobekatu daitezke bertan, segur aski futbolari teknikoki puruagoak ateratzen direla bertatik, baina nik futbola praktika kaletar gisa ulertzen dut. Argentinan Maradonaz ari direnean karrikan jokatzen duten atezainez mintzo dira. Futbolaz dudak ideia hortik askoz hurbilago dago akademietatik baino. Gaur egun, haurrak zazpi urterekin goi-mailako futbol zentroetan sartzen dituzte. Berez ez zait gaizki iruditzen, baina futbolaria jaio egiten da.

### **Zer iruditzen zaizu taldeek hamar-hamabi urteko haurrak fitxatzea?**

Izugarri goiz dela uste dut. Haur bat futbolaria ateratzeko egiten direnak egitea sinesgaitza gertatzen zait. Messiren kasuan, hamabi urterekin ekarri zuten Argentinatik. Sekulako futbolari puska atera da, orduan denak isiltzen gara, baina hor sekulako arrisku eta desgaste familiarra dago. Haur horiek etxean eta lagunartean berez jasotzen diren balore asko galtzen dituzte, eta horrek derrigor dakar alde negatiboa.

### **Nor iristen da lehen mailara, teknikoki dohatsua ala buru-indar handikoa?**

Itxura batean, teknikoki dohatsua lehenago heltzen da, baina konstantea eta erregularra denak ere debutatzen du. Esango nuke gainera, garapen futbolistiko berantiarra izan dutenek futbol bizitza luzeagoa dutela. Orain Espainiako Federazioko presidenten Villar da adibidea. Athletic-en debutatu

eta bidali egin zuten. Getxon hirugarren mailan jokatzen aritu zen, Athletic-ek berriz fitxatu eta internazionala izaten bukatu zuen arte. Gaztetan teknikoki jantzia denak ikus-kizuna ematen du, baina zenbat dira su batean hasi eta pot egin dutenak? Oreka eta konstantzia ezinbestekoak dira goi-mailako kirolean irauteko.

### **Jokalaria fitxatzerako orduan saiatzen zara futbolari bati oreka ematen dioten zelaitik kanpoko datuak biltzen?**

Saiatzen zara, baina ez da erraza, oso mundu opakoa da. Jokalarien ordezkariak tartean sartzen dira, eta zuzeneko edo lehen eskuko informazioak ez badaukazu sekulako zipotzak sartzen dizkizute. Ordezkarien interes bakarra saltzea da, eta edozertarako prest daude. Ezker hegaleko baten bila bazabiltza, ezkerrean oso ondo egokitzen den eskuin hegaleko bat daukatela esateko gai dira. Zuk jokalaria fitxatzen duzu, eta postu horretan ez duela jokatu nahi esaten dizu gero, ez duela inoiz hor jokatu. Aluzinagarria da. Era berean, ordezkarien arabera, zelaitik kanpora denak dira aingerutxoak, denak jator-jator eta formal-formalak. Ordezkarien hitzaz gaindi joaten ahalegindu behar zara, informazio zintzo eta zehatza lotzen, eta batez ere, jokalaria ibilbide osoan gertatutakoa aztertzen. Egund, nirekin arazoak izan zituzten jokalaria batzuek beste entrenatzaile batzuekin problemak dituztela ikusten dut. Ez da kasualitatea. Ordezkariak aldatu direla, ezkondu eta asentatu direla, esango dizute, baina bai zera. Gauza zenbaitetan, pertsonak ez dira sekula aldatzen, beti lehengo lepotik burua.

### **Adibidez, Lyon-eko entrenatzaile ohiak, jokalaria dibortziatuak ez omen zituen fitxatzen.**

Oso interesgarria da hori. Nire ustez, dibortziatu berri den jokalaria baten oreka psikikoa ezin da ona izan. Derrigorrez errendituko du bere mailaz behera, eta ez harritu, aldagelan oilategia aztoratzen badizu. Kurioso da futbolaren eta dibortzioaren arteko lotura. Futbolari asko eta asko aldapa behera hastean edo erretiratu berritan banandu dira. Ez da inor bereizten bere artearen gorenean. Jakin behar da futbol munduko bikote anitzek senarraren gloria momentuan ezagutzen dutela elkar, eta neurri batean, harreman fikziozkoak direla. Errealitatea gloria bukatzean dator.

### **Gaur egungo taldeen aldagelak errealitate kultur-anitzak dira. Nola kudeatzen da hori?**

## **Sailkapena**

**“Iaz European sartu ziren sei taldeak hortxe-hortxe egongo dira aurten ere. Igo berriak zein iaz gaizki ibili zirenak, berriz, ez dira putzutik aparte ibiliko. Mirari gutxi dago futbolean”.**

**“Aldagela batean 25 jokalaria bizi dira, bakoitza bere ego, mania, helburu eta miseriekin. Entrenatzaileak jakin behar du soka noiz tenkatu eta noiz laxatu”**

## AZKEN HITZA

### Euskal taldeak

“Bosman legeak kalte handia egin digu. Filosofia eta kontzeptu futbolistiko batzuen mamu beltza da. Harrobia ikusteko era ere aldatu da, globalizatu, eta guk identitate arazo batekin egin dugu topo. Aldez edo moldez, hori konpondu beharra dago. Harrobiko jokalariek ateratzeko bidea eta denbora behar dute”.



Oso konplikatu da. A Coruñan errezorako ohitura handia zuten hiru marokoar neuzkan. Partida guztien aurretik euren liturgia zeukaten, lurrera tapiza bota eta otoitzean hasten ziren. Pentsa, behin arbitroa ere izutu egin zuten! Dena den, denen erlijio, ohitura eta bizimoduak errespetatzen eta koordinatzen saiatu behar duzu, baina aurrera egiteko, futbolaren eta egin nahi den jokoaren inguruko kontzeptu komuna edukitzea ezinbestekoa da. Adibidez, Athletic-en aldagelan ez duzu arazo hori. Denek bizimodu, bizi proiektu eta futbola ikusteko era oso antzekoak dituzte. Beste talde batzuetan, jokalariek badakite epe jakin baterako daudela, eta gehienetan beraiena ikusten dute taldeari erreparatu beharrean. Nik zorionez, ez dut jende txarrik izan, eta ia beti denok egin dugu norabide berean arraun.

**Ez da erraza izango, ezberdintasun kulturaleri soldata ezberdintasunak gehituz gero...**

Ez da erraza, ez. Erraza izango balitz mundu guztia izango litzateke entrenatzaile! Gogoan dut Atletico Madrilen jokatzeko nuenean atzelarietako aurrelari bati baino dezente gutxiago ordaintzen zirela. Atzelari batek beti esaten zuen gugatik erdi-txantxan: “A zer eguna daukaten *millionteek!*”. Broma tonuan esaten zuen, baina bistakoa zen hor arantza bat zegoela. Beste kasu batzuetan, ohartzeko zara bat topera errenditzen ari dela eta ondokoak, lau aldiz gehiago kobratu arren, ez duela kolpe zorrik jotzen. Harrobiko jokalariek ere beti esaten dute kosta egi-

## Taktika

“Taktikak jokalarien araberakoa izan behar du. Entrenatzaile bat ez dute taktikak on bihurtzen, jokalariek baizik. Hori hala, jokalariek bakoitzari zuku gehien ateratzea da entrenatzailearen lana”.

**“Gaur egun, entrenatzaile batentzat ezinbestekoa da prentsa-aurreko bat kontrolatzen edo elkarrizketa bat toreatzen jakitea”**

ten zaiela hasieratik kanpotarraren begirunea lortzen. Badaude jendea motibatze formulak, baina goiz ala berant, ezberdintasun horiek beti ateratzen dira argitara. Era berean, ezinezkoa litzateke aldagelan denek berdin kobratzea. Batek zaharragoa dela esango lizuke, besteak gehiago jokatzeko duela, Urliak golak sartzen dituela, Sandiak palmarek hobea daukala... Aldagela batean 25 jokalarik bizi dira, bakoitza bere ego, mania, helburu eta miseriekin. Entrenatzaileak jakin behar du soka noiz tenkatu eta noiz laxatu.

**Askotan soka entrenatzaileak berak edukitzen du lepo-bueltan. Jokalariek bota dezakete trebatzaile bat?**

Ados jartzen badira, oso errazki. Gainera ez daukate denek ados jarri beharrik. Nahikoa da nukleo txiki batek zure aurka egitea. Nahikoa da gezur txiki bat sortu eta jendea elkarririk burua berotzen jartzea. Bola aldapa beheara handitzen eta handitzen hasten denean, alferrik da, ez dago zereginik. Bota nahi bazaituzte bota egingo zaituzte.

**Suposatzen dut jokalariek ez ezik prentsak ere sekulako indarra duela.**

Kontrako giroa sortu dezake. Jendearen morala eta animoa abailtzen duen giro desatsegina eta tentsua. Prentsak iritzia sortzeko duen boterea izugarria da, eta ez duzula balio esaten badu, jende guztiak pentsatuko du ez duzula balio. Gogoan dut, Carlos Bianchi entrenatzaile argentinarra nola *fulmi-*

natu zuen prentsak hedabideekin erlazionatzeko zuen modu hotzogatik. Arratsaldegautan ez zuen elkarrizketarik ematen, eta hori ez zaio batere gustatzen Espainiako kirol prentsari. Hori ikusita, bere bila joan ziren, eta ez zuten etsi bidali arte. Horretaz gain, prentsa oso abila da aldagelan giro nahasia sortzen. Oso ongi ezagutzen ditu jokalaria eta badaki zein diren bakoitzaren interes eta ahulguneak. Ederki dakite komeni zaien dinamika sortzen, eta oso zaila da horri aurre egitea.

**Entrenatzaileak ez, orekariak izatera kondenatuta zaudete.**

Hortik dator hain ezaguna eta poetikoa den entrenatzailearen bakardadea. Inguruaren konfiantza galtzen hasten zarenean hilda zaude. Denekin ondo egon behar duzu baina ezin zara inoren lagun izan. Beti kontatzen dut Luis Aragonesen kasua. Atletico Madrilen gure taldekide izatetik gure entrenatzaile izatera pasa zen goizetik gauera. Ba egun batetik bestera *de tí* hitz egitetik *de usted* hitz egitera pasa zen, gurekin parranda egite-rik kafea ere bakarrik hartzera. Berak markatu zituen distantziak. Bazekien, jokalariek ez dizutela galdetzen zergatik jokatzaren duten, zergatik ez duten jokatzaren baizik. Bazekien,

**“Denekin ondo egon behar duzu baina ezin zara inoren lagun izan”**

futbolariak behatza emanez gero besoa hartzen dizula. Hori futbolariak ez ezik, prentsak ere egiten du. Horregatik esaten dut, entrenatzaile izateko ikastaroetan, taktika eta prestaketa fisikoari buruzko klaseez gain, ez legokeela gaizki prentsarekiko harremanak lantzeko lezioak ematea. Gaur egun, entrenatzaile batentzat ezinbestekoa da prentsa-aurreko bat kontrolatzen edo elkarrizketa bat toreatzen jakitea.

**Langabezian hilabete luzeak irauteko pazientzia edukitzea ere ezinbestekoa izango da, ezta?**

Athletic utzi nuenetik hamar urte egon naiz etenik gabe entrena-tzen. Orduan lasaitasun une hauekin egiten nuen amets, baina orain telefonoak noiz joko zain nago, entrenatzeko amorratzen. Taxuzko proiektu bat gidatzeko antsia daukat. Ez dakit zerekiko errebantxa gosea den, baina grina edo har horrekin bizi naiz. Ez naiz ongi egin dudanarekin akordatzaren, gaizki egin edo egin gabe utzi dudanarekin baizik. 612 partida zuzendu ditut ligan. Bigarrena naiz Luis Aragonesen ondotik. Ilusioa daukat marka hori berdindu eta gainditzeko. Ez dakit aukerarik izango dudana, baina badaezpada, prest egotea komeni zait. ■

## Jaso astero ARGIA etxean

Abantaila ugari izateaz gain, Harpidedunen Guneko kide ere izango zara



Izen deiturak: .....  
 Helbidea: ..... Posta kodea: ..... Herria: .....  
 Herrialdea: ..... Jaioteguna: .....  
 N.A./I.F.K.: ..... Tel./Faxa: ..... e-posta: .....  
 Ordainketa mota:  Bankuz  
 Taloez  
 Transferentziaz KOMUNIKAZIO BIZIAGOA S.A.L.ren kontura (ARGIA): 3035 0036 14 0360048647  
 Bankuz ordaintzekoek betetzeko soilik  
 Banku edo aurrezki kutxa: .....  
 Titularra: ..... N.A./I.F.K.: .....  
 Titularraren helbidea: ..... Titularraren telefonoa: .....  
 Entitatea: \_\_\_\_\_ Sukurtsala: \_\_\_\_\_ K.D.: \_\_\_\_\_ Kontu zenbakia: \_\_\_\_\_  
 Data: ..... Sinadura: .....

Harpidetza-orri hau zure datuekin bete eta helbide honetara bidali: **142 P.K. / 20160 Lasarte-Oria –Gipuzkoa–**

### Aukeratu ongietorri oparia



“Kirolaz badakit”  
mahai-jolasa



“888 txiste”  
liburua



“Txoriak txori”  
lamina



%25eko beherapena  
ikasle bazara

**Urtebeteko harpidetza:**  
2008ko prezioak

**135 €** Hego Euskal Herrian  
**165 €** Ipar Euskal Herrian

